

TXOSTENA
2020



SUSTATU 26

**Toki xume askotan
jende xume askok
gauza xume asko eginez,
mundua alda dezake.**

www.proyde-proega.org

P.K. 851 20.080 DONOSTIA Lege-gordailu zbk: SS-743/99



LANKIDETZA PROIEKTUAK 2020

IZENBURUA	HERRIALDEA	Diru-laguntza eman duen erakundea	Diruz lagundutako gastuak	Proyde-Proegaren ekarpena	GUZTIRA
Emakumeen, nesken eta nerabeen aurkako bortizkeriaren prebentzio rako hezkuntza proposamena San Marcoseko herri eskoletan, Guatemala.	Guatemala	Bizkaiko Foru Aldundia	51.587,17 €	4.380,76 €	55.967,93 €
Inklusio eta partehartzea duen eskola eraikiz Malvinas Argentinan, Cordoba.	Argentina	Eibarko Udala	46.080,00 €	4.160,00 €	50.240,00 €
Akwabako (Abidjan) kaleko haurren birgizarteratze familiar, sozial eta aboralean laguntzea.	Boli Kosta	Orona Fundazioa Zumarragako Ud. Zarauzko udala	1.000,00 € 6.700,00 € 11.340,00 €	16.400,00 €	35.440,00 €
Maya-q'eqchis emakume nekazarien ahalduntze ekonomiko eta politikoa.	Guatemala	Donostiako Udala	30.697,16 €	2.645,56 €	33.342,72 €
Libanoko errefuxiatu siriar eta irakiarrak gizarteratzen laguntzea, batez ere gazteak eta emakumeak.	Libano	Caritas Bilbao	20.000,00 €		20.000,00 €
Larrialdi-laguntza Beiruten izandako inpaktu masiboko leherketagatik.	Libano		14.856,48 €	1.932,00 €	16.788,48 €
Larrialdi-laguntza Burkina Fason lekualdatutako pertsonentzat.	Burkina Faso	Donostiako Udala	15.000,00 €		15.000,00 €
Togo iparraldeko haurrentzako lehen hezkuntzako programa.	Togo	Irungo Udala	9.550,00 €	2.500,00 €	12.050,00 €
Argentina eta Paraguaiako populazio marjinalako La Salle ikastetxeetako neska-mutil eta nerabeentzako kalitatezko	Argentina-Paraguai	Zumarragako Ud. Andoaingo Udala	2.400,00 € 7.000,00 €		9.400,00 €
Nikaraguarako Larrialdi laguntza, ETA eta IOTA urakanen ondorioei aurre egiteko Bilwi eta Sasha-n.	Nikaragua	Beasaingo Udala	9.387,94 €		9.387,94 €

#LaSalleCovid19 Larrialdia.	Libano			9.107,00 €	9.107,00 €
Rumbek-eko haurrentzako kalitatezko oinarritzko hezkuntza bermatzea.	Hego Sudan	Zarauzko Udala	5.400,00 €		5.400,00 €
Pildesti-ko Lanbide Eskola.	Errumania			5.000,00 €	5.000,00 €
Maya-q'eqchis emakume nekazarien ahalduzte ekonomiko eta politikoa.	Guatemala	Hondarribiko Udala	2.625,00 €		2.625,00 €
Tamiko Landa Formazio Zentroko nekazarien familiei prestakuntza integrala ematen laguntzea.	Togo			2.000,00 €	2.000,00 €
Kiri eta Kongoussi-ko ikasleei laguntzea.	Burkina Faso			1.000,00 €	1.000,00 €
EpD: Bidezko elikadura sustatzen Eibarren, 2019.		Eibarko Udala	4.000,00 €	1.194,32 €	5.194,32 €
EpD: Kontsumo ohitura arduratsuak sustatzen Eibarren, 2020.		Eibarko Udala	764,80 €		764,80 €
EpD: Etorkizuna eraikitzen dugu: Hezkuntza gure tresna.		Zarauzko Udala	629,44 €		629,44 €
		GUZTIRA	239.017,99 €	50.319,64 €	289.337,63 €

GARAPEN PROIEKTUAK

Emakumeen, nesken eta nerabeen aurkako bortizkeriaren prebentziorako hezkuntza-proposamena San Marcoseko herri eskoletan, Guatemala

Proyde-Proegak urteak daramatza Guatemalako Prodesa asoziazioarekin lankidetzan. Prodesak herrialdeko populazio indigenen aldeko hezkuntza-proiektuak gauzatzen ditu, batez ere.

Aipatutako hezkuntza-proposamena PLANOS 2020-2029 deituriko planaren barruan kokatzen da. Proiektuaren onuradun izan dira Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako 825 ikasle inguru (428 mutil eta 397 neska), Concepción Tutuapa eta Comintacillo udalerrietako 10 eskola publikotan, San Marcos Departamentuan. Gurasoek ere hartu dute parte sentsibilizazio jardueretan, 100 pertsona inguru (70 emakume eta 30 gizonezko, gutxi gorabehera). Sexualitateko Hezkuntza Integralaren Estrategiaren barruan kokatuta dago Programa. Lan egin dute emakumeen, nerabeen eta nesken aurkako indarkeria prebenitzeko prestatutako hezkuntza-programako materialetan oinarrituta. Emakumeen eskubideen sustapenean esperientzia duten eta bi udalerrietako biztanleekin harreman estua duten emakumeek inplementatu dute programa.

Proiektuak Bizkaiko Foru Diputazioaren diru-laguntza izan du.



Togo iparraldeko hurrentzako lehen hezkuntzako programa

Duela 30 urtetik hona, Dapaong-eko Elizbarrutiaren hezkuntza-programa La Salleko Anaiek zuzentzen dute. Eta 2015. urteaz geroztik, Proega programa hori diruz laguntzen ari da, bere ekarpenekin eta Irungo Udalaren ekarpenekin.

Aurten, bi norabidetan egin da ahalegina:

- Eskoletako irakasleen gaitasuna hobetzea, sareko zenbait landa-eskoletako 10 irakasleren formazioarekin eta eskolako akonpainamendu pedagogikoa indartzearekin. Azken onuradunak 10 eskoletako ikasleak izan dira: 564 neska eta 636 mutil inguru.

- Eta eskola-kantinak izeneko jarduerari laguntzea (eskola-jantokiak), ikasle asko zerbitzu horren beharrean baitira ikasturtea jarraitu ahal izateko. Izan ere, familien egoera ekonomikoa ahula da eta elikadura-ohiturak eskasak. Astean hiru egunetan ematen zaien elikadura-laguntzak bi funtzio garrantzitsu betetzen ditu: Elikadura eskasa hobetzea eta eskola-errendimendua ahalbidetzea. Onuradunak 4.806 emakume eta 5.419 gizonezko izan dira.



PROIEKTU HUMANITARIOAK


2020 urtean zehar Proyde-Proegak zenbait larrialdi egoerei aurre egin izan dio herrialde ezberdinetan.

#LaSalleCovid19 Larrialdia

Covid-19ren pandemiari erantzunez, Kristau Eskoletako Anaien Institutuak, bere Fondazione De La Salle Solidarietà Internazionale ONLUSen bidez, "#LaSalleCovid19" ekimena abian jarri zuen 2020ko apirilean. Kanpainak kontzientzia soziala sortu zuen salletar munduan, baita finantza-laguntza ere herri zaurgarrietan koronabirusak kaltetutako pertsonen eta gizarteen alde.

Proyde-Proegak parte hartu zuen kanpainan, gainerako GGKEekin eta La Salleko erakundeekin batera. 225 proiektu inguru inplementatu izan dira mundu osoan, 9.500.000 euro inguruko diru-laguntzari esker.

Larrialdi-laguntza Beiruten izandako inpaktu masiboko leherketagatik



2020ko abuztuaren 4an, inpaktu handiko leherketa batek Beiruteko erdigunea suntsitu zuen, berrehun pertsona baino gehiago hil eta zaurituak milaka izan ziren. Leherketak Libanoko hiriburuko portualdea astindu zuen, eraikinak suntsitu zituen eta salletar hiru eskolei kalte handiak eragin.

Proiektua modu koordinatuan planteatu genuen, Solidarietà Internazionale ONLUSek sustatutako #LaSalleForBeirut izeneko ekimenarekin.

Jasotako dohaintzak Fratelli proiektuaren Libanoko arduradunei bidali zitzaizkien, sozio-hezkuntzazko zerbitzuei eta kaltetutako azpiegiturei aurre egiteko eta, aldi berean, kaltetutako familiei laguntzeko. Azpimarragarri, gure artean, Bilboko Caritasen ekarpena.

Nikaraguarako Larrialdi laguntza, ETA eta IOTA urakanen ondorioei aurre egiteko Bilwi eta Sasha-n (Nikaragua)

2020ko azaroaren 2an 4. mailako Eta urakanak eta azaroaren 16an Iota urakanak Bilwi eta Sasha herriak suntsitu zituzten Karibeko Eskualde Autonomoan, Nikaraguako iparraldean. Herritarrek euren etxebizitzak, eskolak eta laborantzak galdu zituzten. Kaltetu gehienak nekazariak izan ziren, indigenak eta afroak.

Gertaera haren aurrean, Proyde-Proegak larrialdi-proiektu bat aurkeztu zion Beasaingo Udalari, eta honek onartu egin zuen.

Jasotako laguntzarekin, 197 familiari janari-paketeak eman zitzaizkien, 15 familien etxeetako teilatuak konpondu ziren eta Lehen Hezkuntzako 2 landa-eskola txiki ere konpondu ziren, 95 haurren hezkuntza ziurtatzeko.




TXOSTEN EKONOMIKOA 2020


FUNTSEN BANAKETA JATORRIAREN ARABERA




ERREKURTSO PROPIOEN JATORRIA



GASTUEN BANAKETA



FINANTZIATUTAKO PROIEKTUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA



BAZKIDEA EGIN EDO DOHAINTZA EMATEKO

Izen-abizenak..... NAN.....

Helbidea..... Telefonoa.....

P.K. Herria..... Probintzia.....

Ordainketa modua:

1 ☐ Banku-transferentzia

KUTXABANK: ES29 2095 5010 34 1061863279

2 ☐ Bizum 02359

3 ☐ Banku-helbideratzea

Kontuaren titularra

Titularraren NAN

Kontu zenbakia _ _ _ _ _

Aldizkakotasuna

☐

Urterol

☐

Sei hilero

☐

Hiru hilero

Kuota:€

PROYDE-PROEGA Fundazioa da zure datu pertsonalen arduraduna, Fundazioarekin duzun lankidetzari eta ondorengo harremanak kudeatzeko. Banku-helbideratzearen aukera eskatzeko agiri hau sinatuta, espresuki baimena ematen diozu Fundazioari, bi aldeek arteko harremanak dirauten bitartean, zure ingurutzako-kuotaren ordainagirik kobratzeko adineko kontuan eta mugarik gabe sarkeaz ditzan.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baina beste eskubide batzuk ere. Datuen Babesari buruzko informazio gehigarria azaltzen den bozala; gure instalazioetan eska dezakezu, edo helbide elektronikoa honen bidez: proega@lasalle.es

Moztu txartel hau eta bidali mesedez helbide honetara:

PROYDE-PROEGA FUNDATZIOA
851 P.K. - 20.800 DONOSTIA

Titularraren sinadura

SENTSIBILIZAZIO KANPAINA 2020-21

Kanpainaren goiburua hau izan da: "Pertsona guztientzako hezkuntza inklusibo, bizidun eta kalitatezkoaren alde".

Hezkuntza tresnarik boteretsuena da pobreziaren eta horren ondorio suntsitzaileen aurka borrokatzeko eta gizarte bidezkoago bat lortzeko.

Baina, azken urteetan aurrerapenak egin diren arren, 265 milioi neska-mutil baino gehiagok eskolatu gabe jarraitzen du eta 10etik 6k ez du oinarrizko ezagutzarik irakurketan eta matematikan.

Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH) desberdinen inguruko lanarekin jarraituz, gure arteko erakunde solidarioek GIH 4ri buruz gogoeta egitera bideratu nahi izan dute ikasurte honetako kanpaina. Horren helburu nagusia izanik 2030era arte hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan eta pertsona guztientzat ikaskuntza aukerak sustatzea. Izan ere, etorkizun iraunkorra eraikitzeko, denok balio dugu.



UDAKO BOLUNTARIOTZA PROIEKTUAK

Pandemiagatik ezin izan ziren gauzatu. Hala ere, emandako urratsak jasota geratzea nahi dugu.

Helduen boluntariotza taldeak

2019ko abenduaren amaieran osatu ziren bi boluntario-talde:

- 5 boluntarioz osatutako taldea Boliviako Trinidad-Beni proiektura joateko.
- Eta 3ko beste talde bat Abidjango kaleko haurren Akwaba proiekturako, Boli Kostan.

2020ko otsailaren 15ean egin genuen formazio-prestakuntzako lehen topaketa, San Asension. Eta hegazkin-txartelak aterata izan arren, martxoan pandemiagatik dena ezabatu behar izan genuen. Lortu genuen, behintzat, ordaindutako billeteen kostua berreskuratzea.

Jende Xumea taldeak

Bilboko eta Gipuzkoako (Eibar-Zarautz) gazte-taldeek bi urte zeramatzaten talde gisa biltzen, 2020ko udako boluntariotza-proiektuari begira. Nora joango ziren, proiektuaren lekuak ere bideratuta zeuden: Argentinan (Malvinas Argentinas) eta Bolivian (Santa Cruz de la Sierra). Udako proiektua bertan behera utzi arren taldeek jarraitzen duten elkartzeko.



